

## **KOADERNO TXIKIKOAK**

June Ugalde Pikabea, 13 urte

*Lezo*

Pertsona bakoitza pasarte askotako ipuin bat da, eta pasarte bakoitza bizitzako aro ezberdin bat. Ixoneren bizitzako lehenengo pasarte, haurtzaroa, duela hamabost urte hasi zen, ume itsusi eta zimur batek lehenengo aldiz argia ikusi zuenean.

Negar saio baten ondoren, amaren bularretik zintzilikatzea izan zen umetxo hark egin zuen lehen gauza. Momentu horretantxe, bere gurasoek miretsia sentitu zen Ixone. Laster ezagutu zituen bere bi ahizpa koxkorrak, momentu hartatik aurrera, bere bizitzan gehien maiteko zituen pertsonak, behar zuen babesa emango ziotenak.

Haurra handitzen joan zen. Oinez, hizketan, entzuten, laguntzen, laguntza onartzen, borondate onekoa izaten eta maitatzen ikasi zuen bere guraso eta familiakoen ondoan. Guraso onak zituen. Beren alabengatik edozer emango zuketenak. Ikasketei, laguntasunari, osasunari eta nortasunari garrantzia handia ematen zietenak. Neskato jator eta arduratsutzat zeukaten Ixone bere gurasoek.

Hori izan zen bere bizitzaren oinarri. Azken finean hori da Ixone. Hori, eta bere izaerak jasan dituen aldaketak. Orain, arrazoirik gabe ere, gaizki erantzuten dio jendeari. Zakartu eta zabartu egin da. Nabaritzen du, onartzen du eta sentitzen du, baina berdin jarraitzen du. Nerabea da.

Lagunak izugarri axola zaizkio, elkarri biziki laguntzen baitiote. Haiekin dena partekatzen du, tira, ia dena. Ixoneren lagunik onenak Itsaso du izena. Arratsaldeak pasatzen dituzte barrez, gustatzen zaizkien mutilez hizketan, atsegin ez duten jendea larrutzen...

Baina Ixoneren bizitzan pertsonarik garrantzitsuenak bere ahizpak dira, Zuriñe eta Ainara. Zuriñe kanpoan ari da ikasten, beraz, Ixonek oso gutxitan hitz egiten du berarekin. Ainara, berriz, batxilergoan ari da, lehenengo mailan. Hirugarren ahizpatzat daukan zapaburu bat ere badu bere gelan. Katilu batean bizi da Burubeltz. Umekeria dirudien arren, pentsatzeko eta hitz egiteko norbait behar duenean beragana jotzen du Ixonek. Berak dioenez, buru txiki horretan sekretu handiak gordetzen ditu eta bere barrua husten eta hobeto sentiarazten laguntzen omen dio.

Bere gelako liburu tartean koaderno txiki bat dago ezkutuan. Bertan gordetzen ditu sentimendurik sakonenak. Izan ere, Ixoneri mutil bat gustatzen zaio, eta badu zer kontatua, ez baitu besterik buruan. Bera eta bera. Mutila lotsati samarra da, bera baino zaharragoa eta errepikatzailea. Ez du gelako ia inorekin hitz egiten eta lehengo urteko

lagunekin ibiltzen da. Ixoneri mutil perfektua iruditzen zaio Eñaut. Agian, horrexegatik egiten zaio hain zaila berarekin hitz egitea. Eta, agian, horrexegatik daude esan ezin dizkion gauzez beteta koarderno txikiko orriak.

### **2009ko urtarrilaren 13a**

*Eñaut zoragarria da. Ez dut ia ezagutzen, ez dakit ezer berari buruz, baina badakit (ia ziur) munduko mutilik jatorrena dela, begiradan nabari zaio. Guapo, ilehoria eta begi berde-berdeak. Gorri-gorri jartzen naiz bere ondotik pasatzen naizen bakoitzean. Bera konturatzen ez den arren, momenturo berari begira egoten naiz klasean. Ez naiz aspertzen, orduak egon naiteke berari begira, bere mugimendu bakoitza behatzen, aspertu gabe. Aste honetan, irakasleek hiru aldiz egin didate errieta, erne ez ego-tegatik. Ez zaie arrazoirik falta, ezin dut beste ezertan pentsatu!*

### **2009ko urtarrilaren 15a**

*Nire lagunak konturatu dira Eñaut gustatzen zaidala. Itsaso haserretu egin da, Eñautena neronek kontatu ez diodalako. Nigan konfiantza osoa duela eta niri berdin zaidala, ez zuela horrelakorik espero nigandik... ni bera konbentzitzen saiatu naiz, ez dela horrela eta eskertzen nuela elkarrengan genuen konfiantza. Baina alferrik. Mezu bat bidali diot mugikorrez. Handik hamar minutura jaso dut beste bat bueltan. Barkatu dit, hemendik aurrera guztia kontatuko diodala hitz emateko eskatuz. Nik baiezkorekin eta musu batekin bidali diot gaurko azken mezua. Lasai geratu naiz, behintzat.*

-----

*Gaurko egunak ez du datarik ere merezi. Nazkagarria izan da! Itsasorekin haserretu naiz berriz ere. Antza denez, lehengo egunekoa ez dugu erabat konpondu, nik uste dut ez zitzaiola ondo iruditu barkamena mezu bidez eskatzea. Eta, hori gutxi balitz, Gizarteko azterketa suspenditu dut. Etxean kontatzen dudanean... Ainara azterketetan dago, ni bezala, beraz, ezin diot denborarik kendu. Gelan sartu eta, musika jarri bitartean, kandela bat piztu dut. Munduan bakarrik nagoela pentsatu eta Burubeltzekin hizketan hasi naiz. Baina orduantxe etorri zait ama lisatutako arropa garbiaren tontor batekin. Gelatik bidali dut oihuka. Bere borondate onenarekin etorri eta izugarritzko pazientziarekin eta isil-isilik alde egin du. Afalorduan zera esan dit: ez zuela horrelakorik merezi eta bakean utzi nauela lasaitu arte, baina ez zaiola batere gustatu hitz egin diodan modua. Orduantxe joan naiz beragana eta barkamena eskatuz, besarkada bat eman diot. Gaizki erantzun eta damutzen naizen bakoitzean, gauza bera egiten dut, eta borondate onenarekin gainera, baina gero berdin jarraitzen dut.*

### **2009ko urtarrilaren 19a**

*Klasean geunden eta Eñauti begira nengoen. Bat-batean, bere begirada sumatu dut. Gorri-gorri jarri naiz. Ez nekien nora begiratu, ez zer egin. Eskuan nuen boligrafia hartu eta idazteko itxurak egiten hasi naiz, disimulatu nahian edo. Baina badakit ez duela ezertarako balio izan. Eñaut zerbait susmatzen hasia izango da dagoeneko.*

### **2009ko urtarrilaren 23a**

*Gaur, Gaztelanian irakurtzeko denbora eman digu irakasleak. Inork ez du horretarako aprobe txatu. Denok*

*ohartxoak bidaltzen pasatu dugu klase osoa. Niri iritsi zaizkidanen artean, batek harritu nau. Eñautena zen! Ezin nuen sinetsi. Oso letra txarra dauka, ez zaio ia ulertzen. Segundo batzuen buruan ulertu dut jartzen zuena. Ea zergatik nagoen momenturo berari begira galdetu dit. Ez nekien zer erantzun, eta irribarre egin diot, galdera hark erantzun bakarra baitauka: atsegin dudala. Baina hori ezin nion jarri. Ez dut berak jakiterik nahi. Ezta pentsatu ere! Itsasok askotan hitz egin dit Eñauti guztia kontatzeari buruz. Orain arte nahiago izan dut ezkutuan gorde eta, hainbeste denboraren ondoren, ezin diot egia esan. Itsasok jakin-mina zuen, gelaren beste aldetik niri begira baitzegoen, baina nik begiratzen nion bakoitzean, beste alderantz zuzentzen zuen begirada. Ez da nirekin luzaroan haserre egoteko kapaz, baina oso harroa da eta inola ere ez luke onartuko. Nik ere oso gaizki pasatzen dut, ordea, klase tarteko berriketalditxo laburrak gabesten ditut. Asko, gehiegi urrundu gara, ezingo dut denbora luzean horrela egon!*

#### **2009ko urtarrilaren 24a**

*Ezin dut sinetsi, Eñautek ateratzeko eskatu dit! Nik, jakina, baietz esan diot bi aldiz pentsatu gabe. Biharko geratu gara, arratsaldeko 17:00etan, ez dakit urduritasunarekin nola jokatuko dudana, baina ezin dut aukera hau galdu. Dena den, nahiz eta eduki, nik ez dut inongo momentutan beraganako interesik erakutsi (tira, baliteke klasean begiratzerakoan edo bere ondotik pasatzera-koan zertxobait urduritzea, baina ez berak nabaritzeko adina). Ainarari guztia kontatu eta lotara joango naiz. Gaur bai egingo dudala ondo lo!*

### **2009ko urtarrilaren 25a**

*Izugarría izan da! Eñaut uste nuena baino jator eta guapoagoa da gertutik ikusita. 17:00etan puntu-puntu iritsi gara biok plazara. Kaixo isil eta lotsati bat esan diogu elkarri, eta oinez hasi gara. Lehenengo eskolako azterketei buruz aritu gara. Ondoren, kirolari buruz... Bat-batean, biok isildu gara. Isiltasuna nabaritu da eta nengoena baino urduriago jarri naiz. Joan beharra nuela esan diot. Biharko geratu gara. Hau egozina!*

### **2009ko urtarrilaren 26a**

*Gaur arratsaldea oso desberdina izan da. Askoz ere seguruago geunden biok. Barre batzuk bota ditugu. Elkar aspalditik ezagutzen genuela ematen zuen. Aurrera zihoran arratsaldea. Eseri egin gara eta pixkanaka-pixkanaka lepotik heldu dit. Musu eman dit ezpainenetan. Ez nuen inoiz horrelako musurik jaso. Goxoa izan da, gustatu zait. Buelta bat eman dugu eta etxera joateko ordua iritsi da. Ez nekien nola jokatu. Baina, azkenean, azken musua ematera ausartu naiz. Etxera iritsitakoan, Ainararen gelara joan naiz korrika, eta xeheatasun guztiak kontatu dizkiot. Nitaz aspertu denean, gelara joan naiz eta ez nuenez eskolako lanetan hasteko batera gogorik, Burubeltzi ere burutxo handi horretan beste sekretutxo bat sartzea pentsatu dut. Uste dut bera ere poztu egin dela!*

### **2009ko urtarrilaren 27a**

*Itasorekin hitz egin dut eskolan. Ezin genuela horrela jarraitu esan diot, Eñautenagatik ezin genuela gure harremana pikutara bidali, ez zuela zertan horrela izan.*

*Itsasok, ordea, bere axolagabe aurpegiarekin jarraitu du niri entzuten. Isildu naizela konturatu denean, niri begiratu eta ea bukatu dudan galdetu dit. Nik, harrituta eta haserre aurpegiarekin, baietz esan diot. Orduan, Itsasok etxerako bidea hartu du. Ni hantxe geratu naiz tuntun baten moduan bere itzalaren ihesari begira. Ez nuen Itsasorengandik horrelakorik espero, oraingoan pasatu egin da.*

### **2009ko urtarrilaren 28a**

*Itsasok bakarrik utzi nau! Beste laguntxo bat egin du. Nerea du izena. Betidanik, gure gelakide izan da, ondo moldatu gara, baina ez dugu inoiz gure laguntzat hartu. Itsasoren ondotik pasatzen naizen bakoitzean, harro aurpegi nazkagarri horrekin begiratzen dit. Ezin dut bere begirada hori jasan! Orain Nerearekin egiten ditu nirekin egiten zituen gauza guztiak. Badakit ni bakarrik sentiarazteko egiten duela, eta lortzen du. Baina ez naiz erabat bakarrik sentitzen, Eñaut daukat ondoan eta berak Itsasok adinako babesa ematen dit. Ainara ere hor daukat edozertarako.*

### **2009ko urtarrilaren 29a**

*Eguerdian, etxera iritsi naizenean, Ainara telefonoa eskuan, lurrean erdi etzanda eta negarrez aurkitu dut. Nire aurrean izeki du telefonoa eta korrika etorri da nigana besarkada estu bat ematera. Egongelara eraman nau eskutik helduta. Ezin zion negarrari eutsi. Ni erabat arduratuta nengoen. Ez nion zer gertatzen zen galdetzea-ri uzten, baina ez zidan erantzuten. Bat-batean, hizketan hasi zait: “Aitak auto istripua izan du lanetik bazkaltzera zetorrenean.” Ez, ez zen posible. Nola zegoen galdetu*

diot masailetik hiru malko jausten zitzaizkidan bitartean. Orduan geratu da benetan hitzik gabe. Ez dut hitzik behar izan aita ez zela onik atera ulertu ahal izateko. Orduan, nik besarkatu dut estu-estu. Ni ere negar batean hasi naiz. Horrelaxe egon gara ia bost minutuz, elkarri itsatsita. Ea ama non zegoen galdetu diot laster. Ama lanean omen zegoen eta ez omen zekien ezer. Deitu egin diogu orduan, aitak auto istripua izan duela eta etxera etortzeko eskatuz. Segituan iritsi da. Amari ere dena kontatu diogu. Ama ospitalera joan da negarrez, dena azal ziezaioten. Zuriñeri deitu diogu guztia kontatuz. Itsasoz bestaldeko negar-zotinak entzun ditut eta imajina nitza-keen malko gaziak nola jausten ziren Zuriñeren masaietik behera. Laster deitu dio amak Ainarari. Gu etxean egoteko lasai, ez joateko eskolara eta ni ondo zaintzeko. Bazkari goxo-goxoa jarri dugu bion artean. Oilasko erreka patatekin. Baina biotako inork ez dugu gustura jan. Nire gelan sartu naiz, Burubeltzen katilua hartu dut eta negarrez hasi naiz. Ezin nion negarrari eutsi, ezin diot negarrari eutsi. Arrats partean itzuli da ama etxera. Iritsi orduko, Ainara eta biongana etorri da eta biok estu-estu besarkatu gaitu. Ez nuen inoiz ama horrela ikusi. Imajinatzen nuen oso gaizki egongo zela, baina kementsu nabari zen. Nik uste dut gure aurrean zegoelako egin zuela, baina ez nago seguru, ama ez baita horrelakoa, normalean ez ditu gauza garrantzitsuak beretzat baka-rrik gordetzen, baina inoiz ez da horrelako egoera batean egon eta, beharbada, horregatik izango da. Goizaldea da (3:15), orain dela hamar minutu alde egin du Ainarak nire gelatik. Hemen eman dugu pare bat ordu aitari buruz hizketan. Bera joan den orduko, ohean sartu naiz,



*eta oraindik esna nago, baina badakit gaur gauean ezin-  
go dugula etxeko inork lorik egin, ezta bihar ere.*

### **2009ko urtarrilaren 30a**

*Gaur Ainara eta biok ez gara eskolara joan. Ezta ama lanera ere. Hileta elizkizunera joan gara. Bertan ikusi ditut familiarteko guztiak. Izeba-osabak, aitona-amonak... Nire gelakide guztiek jakingo zuten aitarena. Baina Itsasok ere. Tira, baina Itsasori ez ziztaion axolako, bere laguntxo berria bakarrik axola baitzaio. Ez dut ulertzen nola alda daitekeen bi pertsonen arteko harremana hainbeste, hain denbora laburrean. Momenturo elkarrekin egotetik, ezer ez konpartitzera. Ezin da Itsaso ondo sentitu. Ni ez nintzateke ondo sentituko, behintzat. Hala ere, ez dut gezurrik esango. Bere bisitaren bat edo telefono deiren bat espero nuen, nire beste lagunek egin duten bezala. Baina, ezta hori ere. Noraino iritsi behar du bere harrokeriak? Ez nuen uste Itsaso horrelakoa zenik. Ez da betikoa.*

### **2009ko otsailaren 1a**

*Gaur ere ez naiz eskolara joan. Amak lasai egoteko esan dit. Ezin diot momenturo aitarengan pentsatzeari utzi eta amak ezin dudala horrela jarraitu esan dit. Zerbait egin behar dudala. Itsaso gonbidatuko nuela esan diot amari. Amak baietz esan dit eta halaxe egin dut. Itsasori deitu diot. Arratsaldean gure etxera etortzera gonbidatu dut eta Nerearekin geratuta zegoela esan dit. Nik mesedez eskatu diot, berarekin konpondu nahi nuela, ezin genuela horrela jarraitu... Momentu batean isilik egon gara baina, azkenean, saiaturko zela esan dit. 17:00etan etorriko zela geratu gara, eta hala egin du.*

16:55ean dagoeneko nire etxean zegoen. Nire gelara sartu gara eta ni hasi naiz hizketan. Ea Eñautenagatik bakarrik zegoen horrela galdetu diot eta berak baietz erantzun dit. Besterik esaten ez zidanez, zera esan diot. Min handia egin didala ni horrelako egoera batean egon eta nigatik ez arduratzeak. Isil-isilik eta lurrera begira geratu da. Nik nahiko haserre nengoela adierazi nahi izan diot, baina modu onean. Lortu dudala uste dut. Segituan, esan dit sentitzen zuela, eta ez ninduela mindu nahi. Nik nirearekin jarraitu dut. Ez zela hainbesterako Eñautena eta, gainera, min handiagoa ematen duela lagun bat zutaz eta horrelako gauza garrantzitsuagatik ez arduratzeak, sekretutxo bat ez kontatzeak baino. Nabari zitzaion Itsasori damu zela. Nik, ordea, haserre jarraitzen nuen. Orduan hasi da pentsatzen zuena esaten. Tuntun baten moduan portatu dela, ez nuela horrelakorik merezi... Hasieran amorrua soilik eman omen zion Eñautena ez esan izanak, baina gero ez omen zitzaion txorakeria iruditu eta haserretu egin omen zen. Egin nion minaz ea konturatzen naizen galdetu dit. Nik baietz esan diot. Berak azalpenarekin jarraitu du. Atzo goizean, nire aitarena jakin zuenean, ezin izan omen zion nigan pentsatzeari utzi, baina harro samarra dela eta ez omen zen nigana etortzen ausartu. Zer moduz nagoen galdetu dit. Negarrez hasi natzaio, ezin izan dut kontrolatu. Arratsalde osoa eman dugu hizketan. Konturatu garenerako, Itsasoren ama genuen deika, ea non zebilen. Joan egin behar izan du, baina konponduta eta pozik itzuli da etxera. Zama handia kendu dut bizkarretik, honek ere oso eragiten baitzidan. Orain lasaia-go nago.

### **2009ko otsailaren 2a**

*Larunbata da eta Itsasoren etxean nago. Gaur hemen egingo dut lo. Amak giroz aldatu behar dudala esan dit. Ezin naizela etxean egon egun osoan, eta beste gauzatan pentsatu behar dudala. Badakienez Itsasoren etxera joatea biziki gustatzen zaidala, bere amarekin hitz egin eta segituan etorri naiz hona. Itsasoren gurasoak oso jatorrak dira. Nitaz oso arduratu ohi dira beti eta oraingoan ere berdin jokatu dute. Hori izugarri gustatu zait, baina ez dira momenturo nola nagoen galdezka aritzen. Galdetu didate, baina behin bakarrik, eta ez didate aitari buruzko ezer gehiago esan. Eskertzekoa da horrekin ni ez itotzea, hori egiten baitu jende guztiak. Gaurkoagatik, behintzat, aitaren kontua alde batera uzten saiatuko naiz. Bihar goizean eskolara joango naiz. Ez dut ikaskide guztien nirekiko begiradak ikusteko gogorik, baina amak animatu egin behar dudala esan dit. Ni saiatu naiz bere iritzia aldatzen baina ezin izan dut. Ondo etorriko zaidala esan dit amak, eta emandako aholku gehienetan arrazoi izaten duenez, kasu egingo diot. Orain lotara goaz, berriketalditxo baten ondoren.*

### **2009ko otsailaren 3a**

*Arrazoi zuen amak oraingoan ere. On egin dit eskolara joateak. Jende desberdina ikusi dut, Eñautekin egon naiz... Gustatu ez zaidan gauza bakarra jende guztiak ni ondoegi tratatzea izan da. Eskertzen da zure inguruko jendea zutaz arduratzea, baina gaizki moldatzen zaren jendeak zuri sentitzen duela esaten hastea ezin dut jasan. Gaurko eguna, azkenean, ez da horren txarra izan. Gaur Ainararen gelara noa lotara, badugu hitz egiteko beharra eta.*

#### **2009ko otsailaren 4a**

*Zuriñek deitu digu! Azkenaldian egunero deitzen duen arren beti amarekin hitz egiten du eta gaur Ainara eta biok jarri gara. Negarrez aritu gara telefonoz, aitarena gertatu zenetik egon gabeak baikinen. Oso poztu naiz bere ahotsa entzundakoan. Banuen berarekin hitz egiteko beharra.*

#### **2009ko otsailaren 6a**

*Eñautekin geratu naiz gaur, berriz ere. Oso argi utzi dit hor dagoela behar dudanerako eta une gogor hauek gainditzen lagunduko didala. Hori izan da gaur entzun nahi izan dudan gauza bakarra. Maite dut Eñaut eta izugarri laguntzen dit. Ez dut nire ondotik joaterik nahi.*

#### **2009ko otsailaren 8a**

*Gaur eskolara joan naiz eta Itsasorekin Eñauti buruz hizketan aritu naiz. Izugarrizko erretolika bota diot bera-ri buruz. Oso jatorra zela, dezente arduratzen zela nigatik... Uste dut aspertu ere egin dudala, baina isil-isilik eta irribarre zabal batez entzun dit esandako guztia. Pozten naiz benetan, konpondu garelako. Ez dakit zer egingo nukeen bera gabe.*

#### **2009ko otsailaren 12a**

*Eliza ondoko ibaira eraman dut Burubeltz bere kati-luan. Nahiko sekretu badakizki. Nire arazo guztietatik libre naiz orain berari esker. Berak ere badu aske izateko garaia.*

#### **2009ko otsailaren 20a**

*Ahizpen, amaren eta lagunuen ondoan eta haien laguntzaz, bizitzari aurre egiteko gai, indarrez eta*

*kementsu sentitzen naiz. Betiko joan zara aita, baina nirekin egongo zara beti. Badakit. Inon ez, baina horren gertu.*

Pertsona bakoitza pasarte askotako ipuin bat da, eta pasarte bakoitza bizitzako aro ezberdin bat. Askotan, pasarteak ez dira guk nahi bezalakoak izaten. Aro garratz horiek gainditzen laguntzeko ingurukoen beharra izaten dugu. Batzuetan, pertsona horiek ustekabean agertzen dira, baina ustekabe horien gozotasunik gabe, garratzasunok gaindiezinak lirateke.